

BALIO-PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konponduko dugu?

Negozio asko sare sozialetan edo Interneten daude, baina ez dute lortzen arreta erakartzea, ezta ikusgarritasun hori benetako bezero bihurtzea ere. Askotan, denbora galtzen dute funtzionatzen ez duten ideiak probatzen, estrategia argirik gabe dirua gastatzen dute edo beren markarekin bat ez datozen irtenbide orokorren mende daude. Agentzia tradizionalak garestiak izaten dira, malgutasun gutxikoak, eta formula estandarrak erabiltzen dituzte. Hutsune hori betetzeko sortu da gure proiektua. Negozioei hobeto komunikatzen eta ingurune digitalean modu hurbilean eta errealistan hazten laguntzen diegu.

Zein da gure balio-proposamena?

Marketin digitaleko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu bezero bakoitzarentzat. Irudi erakargarria, koherentea eta helburuekin bat datorrena sortzean jartzen dugu arreta. Kontua ez da edukia argitaratzea bakarrik; zentzua ematea, publiko egokiarekin konektatzea eta markaren pertzepzioa hobetzea ere bilatzen dugu. Estrategia bakoitzaren pertsonalizazioan, diseinu zainduan eta emaitzak lehenesten dituen ikuspegi praktikoa batean oinarritzen da gure balioa, teorien ordez.

Zerk egiten gaitu lehiakideez bestelako?

Ez dugu txantiloitxirik edo kopiatutako soluziorik erabiltzen. Proiektu bakoitza bakarra da eta hutsetik sortzen da, negozio mota, publikoa eta nortasuna kontuan hartuta. Ideia freskoak, komunikazio argia eta bezeroari bizitza zailtzen ez dioten prozesu sinpleak sustatzen ditugu. Gainera, prezio eskuragarriak eskaintzen ditugu, bereziki negozio txikientzat eta agentzia handiak ordaindu ezin dituzten baina lan profesionala eta ondo egina behar duten ekintzaileentzat pentsatuak.

Zergatik egongo litzateke bezeroa gu gauden lekura etortzeko prest?

Zerbitzua bere errealitatera egokitzen dela ikusten duelako, eta ez eredu orokor batera. Bezeroak denbora aurreztuko du eta ikuspegi komunak saihestuko ditu. Eta, batez ere, hasieratik sumatzen duelako atzean sormen-lana eta lan estrategikoa dagoela, balio argikoa.